

Formazio teoriko-praktikoa

Hizkuntza komunitateen dinamikak. Kulturgintza kokatzeko oinarriak
Julen Arexolaleiba / Jone Miren Hernandez Dr / Iñaki Arruti / Koldo Zuazo Dr / Kike Amonarriz / Mikel Irizar

Euskal Kulturgintzari buruzko irakaspak orain artean: diakronikoki gaur egunera arte.
J.C Etxegoien Xamar / Ane Larrinaga Dr / X. Mendiguren Bereziartu / Lurdes Aranguren / Jose Angel Irigaray

Euskal Kulturgintza XXI. mendean:

a) gizarte aldaketak
Josu Amezaga Dr / Xabier Aierdi Dr / Iñaki Mtz. de Luna Dr / Imanol Galfarsoro / Mario Zubiaga Dr / Josean Urdangarin

b) egungo teknologiak
Josu Landa / Joxe Arantzabal / Luis Fernandez / Iban Arantzabal / Asier Sarasua / Igor Elortza

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa Hezkuntzan

Matile Sainz Dr / Amelia Barquin Dr / Iñaki Artola / Begoña Bilbao Dr

Sormena gertuko komunitatean

Jose Ramon Vitoria Dr / Iñaki Urruzola / Irene Larraza / J. M. Agirretxe (Porrotx)

Testigantza bidezko formazioa

Kantagintza. Bideak eta norabideak

Xabier Lete / Fermin Muguruza / Amaia Zubiria / Anje Duhalde / Eñaut Echamendy Dr

Bertsolaritza. Iragana, oraina, betidanikoa.

Jon Sarasua Dr / Xabier Amuriza / Igor Elortza /Maialen Lujanbio

Literaturgintza. Sorkuntza eta proiektua

Joxan Artze / Bernardo Atxaga / Txomin Peillen Dr / Itxaro Borda

Beste hainbat kultur bide. Esperientziak eta ortzimgak

Joxe Angel Lasa Dr / Andres Gostin / Joseba Zulaika Dr

Tutore-mintegiak

Transmisioa hezkuntza-sisteman / Sorkuntza gertuko komunitatean / Gogoeta aditu-tituluaren irakaspenez

Karrera Amaierako Proiektua

Tutoreak: Ikasleak aukeratzeko

(2007-08 ikasturteko aditu-tituluaren grabazioak eta ikasmaterialeak eskura izango ditugu)

Tokia, egutegia eta ordutegia

Aditu-titulua Eskoriatzan (Gipuzkoa) Mondragon Unibertsitateko (MU)
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean (HUHEZI)

Hasiera eta amaiera datak:
2009/01/07 - 2009/07/01

Klase egunak eta ordutegiak:
Asteazken arratsaldeak
15:00etatik 20:00etara

Opor eta jai egunak:
(Aste Santuko oporrak) 2009/04/06 - 2009/04/20

Matrikulazioa: epea, prozedura eta prezioa

Matrikula zabalik izango da
2008ko azaroaren 17tik abenduaren 15era

Matrikulak egiteko, bi modu:

- 1.- Eskoriatzara etorri, HUHEZIn: goizez 9:45-12:00; arratsaldez 15:30-17:30
- 2.- www.huhezi.edu helbidean aurkituko duzun orria bete. Postan gutuna zertifikatu ondoren, HUHEZIn igorri (Dorleta auzoa z/g 20540)

Zenbatekoa: 1.900€ (Hiru zatitan ordaintzekoa)

Telefonoa: 943 714 157

e-posta: sarrera@huhezi.edu



HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIETAKO
FAKULTATEA

Huhezi Koop. E.
Dorleta auzoa z/g
20540 ESKORIATZA
Tel: 943 71 41 57
Faxa: 943 71 40 32
Posta-E: sarrera@huhezi.edu
www.huhezi.edu



HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIETAKO
FAKULTATEA

Euskal kulturgintzaren transmisioa aditu titulua (2. edizioa)

Kate mailak lotzen

XX. mendeko esperientziatik XXI. mendeko galdegaiei begira, euskal kulturgintzaren transmisioa ipar duen formazio-eskaintza sortu dugu HUHEZIn. Gure herriarentzat funtsezkoa den dimentsio honetarako jakintza-tresnak eta ekinbideak sortzera begiratuta, aurkezten dugun ikasketaren ekarpen berritzailea zera da: gure kulturgintza modernoaren protagonistek -aditu eta ariuek- pilotutako esperientziaren transmisioa antolatu dugu. Historian aurrekaririk gabeko esperientzia-mintegi izateaz gain, belaunaldi berrietan (hezkuntzatik, euskalgintzako erakundeetatik, herri-eskualdetako kultur programaziotik, hedabideetatik, sorkuntzatik) kulturgintzaren transmisioa kudeatzeko bideak eta tresnak garatuko ditu formazioak.

Aditu titulu honen lehen edizioa 2007-08 ikasturtean egin berri da. 60 ikaslek hartu dute parte. 2009arekin batera emango diegu hasiera bigarren edizioari. Esperientziak erakutsi digunez, didaktika-ereduan sakondu egin behar dugu; hau da, ikasleei aukera handiagoa eman behar diegu partehartzeko, ikasitakoan sakontzeko, nork bere interesen arabera ondorioak ateratzeko. Horrenbestez, euskal kulturgintzaren transmisioa biderkatzen joan dadin jendartearen, arreta berezia eskainiko diegu a) hezkuntza-sistemari eta b) tokian tokiko ekimen eredugarriari.

Laguntzaileak

berria



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



BFA
DFB

Euskal Foru
Aldundia
Foral de Bizkaia



zenbat
gara

Elkartea



Herriko Elkarria



EMUN



TOPAGUNEA



Euskal
Herriko
Bertsolaritza
Elkartea



Euskal
Herriko
Bertsolaritza
Elkartea



Proiektua abiarazi duten gogoetak

- XXI. mendeko desafio globalen aroan, gure artean kulturgintzari buruzko esperientzia, gogoeta eta praktiken biltze-, sistematizazio- eta transmisio-lana bideratu egin behar da.
- Agerikoa da gure kulturgintza hezkuntzan eta herri-eskualdeetako dinamikan egokioa txertatu behar dugula. Horretarako, baina, irizpide, esperientzia eta formatzaile falta somatzen da han eta hemen. Era berean, kulturgintzaren inguruko gogoeta-irizpideetan eta formazioen sakondu egin behar dugu denok: elkarrekin, ikastetxeetako, udaletako, hedabideetako eta erakundeetako eragileak.

Eskaintza

- Euskal kulturgintza modernoaren ibilbideari buruzko formazio panoramiko eta sakona, gure kulturako pertsona funtsezkoek lehen pertsonan oldoztua eta emana.
- Kulturgintzaren desafiorei buruzko formazio multifokala eta dialogikoa.
- Kulturgintza hezkuntzan, herri-tako dinamikan, programazioan, elkartegintzan, komunikazioan eta sorkuntzan garatzeko ekinbide eta tresnei buruzko formazioa.

Helburuak

- Euskal kulturgintzari buruzko ezagutza barreiatua corpus batean biltzea, eta formazio dialogiko baten bidez transmititzea. Horren baitan, kulturgintzan azken hamarkadetan sortzaileek izandako kezka, ikuspegi, zailtasun, apustu eta esperientziak belatnaldi berri bati ezagutaraztea.
- Gure kulturgintzak dituen ortzimugen eta desafioren aurrean formazio multifokala eta praktikoa egitea, eragileei jakintza-tresnak emanez.
- Kulturgintzaren transmisioan izandako estrategia eta esperientzia partzialak beste alorretakoan eskura jartzea.
- Aurretik esandako guztiak (korpus baten sorkuntza, desafioren gogoeta multifokala, esperientzien transmisioa) bi multzo harremanetan jarri egitea: batetik artu eta adituen multzoa, eta bestetik gai honetan jantzi nahi duten gaurko eta etorkizuneko eragileen multzoa.

1. Ezagutza bildu

Euskal kulturgintzaren inguruan arituek eta adituek duten ezagutza biltzea eta XXI. mendeko desafiorei begira jartzea. Lehen edizioan izandako aditu eta aritu guztien irakaspenak jasota daukazagunez, horien berri ere izango dute aurrerantzean ikasleek. Aditu-titulua honetan, beraz, ezagutza biltzen jarraitu nahi dugu eta jasotakoa transmititzen.

2. Ezagutza sortu

Ezagutza ekoiztea hiru zentzutan: a) gai batzuk espreski graduondoko honetarako garatuko direlako, b) ezagutza biltzean emaitza batura baino gehiago izango delako, eta c) formazioaren transmisio dialogikoak galdera berriak eta erantzunak sor ditzakeelako.

3. Ezagutza transmititu

Sortutako corpus hori transmititzea ondoren beronen transmisioan paper biderkatzailea izango duen eragile multzoari (irakasleak, gizarte-erakundeetako langileak, kultura teknikariak, etorkizuneko sortzaile, ikertzaile eta bultzatzaile potentzialak). Irakasle-ikertzaileen, kulturgileen eta Euskal Herriko lurralde guztietatik etorriarik hartzaile izango den eragile multzo horren artean gogoeta-gune formatzaile bat sortzeko tresna da graduondoko hau.

Formazioaren eduki-arloak

1. Formazio teorikoa: adituak mintzo

- Hizkuntza komunitateen dinamikak. Kulturgintza kokatzeko oinarriak.
- Egungo gizarte aldaketak eta kulturgintza.
- Egungo teknologia aldaketak eta kulturgintza.
- XXI. mendeko egoeran euskal izaeraz gogoeta.
- Kulturari buruzko diskurtso desberdinak euskal komunitatearen historian.
- Euskal kulturgintza aurrera begira:
- Kulturgintzaren hezkuntza-transmisioa.
- Kulturgintzaren sinergiak herri-eskualdeei dagokienean.
- Kulturgintza, hedabideak eta komunikazio-teknologiak.
- Sorkuntza eta hedapen estrategiak.

2. Testigantzen bidezko formazioa: arituak mintzo

- Kantagintza. Bideak eta norabideak.
- Literaturgintza. Sorkuntza eta proiektua.
- Bertsolaritza. Iragana, oraina, betidanikoa.
- Beste hainbat kulturbide. Esperientziak eta ortzimugak.
- Oinarritutako. Egitura-esperientziak.
- Hezkuntza. Balantzea eta aurrerabideak.
- Kulturgintza gertuko komunitatean. Esperientzia eredu-garriak.

3. Tutore-mintegia: ikasleak mintzo

- Adituen eta arituen irakaspenei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.
- Irakaspenak nork bere interesguneetara egokitzeak.
- Gogoetak eta esperientziak trukatzeko. Bi norabidetan: a) hezkuntza-sistema (hezkuntza orokorra, heiduen euskalduntzea, hezkuntza ez formal) eta b) tokian tokiko ekimen eredu-garriak (sormena, elkarlana, hartu-eman).

4. Oldozpena eta ekoizpena: oro mintzo

- Euskal kulturgintzaren garabideak: ortzimugak, hezkuntza-transmisioa eta hedapen estrategiak.
- Proiektua, hiruko taldeetan, taldeak aukeraturako tutorearen gidaritzapean.

Aditu tituluaren koordinatzailea

- Julen Arexolaleiba

Batzorde pedagogikoa

- Andoni Eizaguirre / Iñaki Urruzola / Jon Sarasua / Jesus Garmendia

